

BALANTZEA
1992tik 1995era

BALANTZEA, 1992tik 1995era

SARRERA	1
I.- EUROPAKO PARLAMENTUKO DIPUTATUA	3
II.- EUSKAL SENATORE JELTZALEEN TALDEA	9
III.- DIPUTATUEN KONGRESUKO EUSKAL PARLAMENTARIEN TALDEA	13
IV.- EUSKO LEGEBILTZARREKO EUSKO ABERTZALEAK TALDEA	17
V.- EUSKO JAURLARITZA	21

SARRERA

Euzko Alderdi Jeltzaleak 1992ko urtarrilaren 12an eta 13an Batzar Orokorra egin zuenetik eta 1995eko abenduaren 2an eta 3an egitekoa den Batzarrera arteko laurtekoan Alderdiak izan duen jarduketaren balantzea egiten ari garen honetan bi sistema erabil ditzakegu: Batzar Orokor hartan aurkeztu zen balantzean erabili zena, edo oraingo Batzarrerako taiutzea erabaki dugun sistema. Biak ere baliogarriak.

Gure aburuz, Euzko Alderdi Jeltzalearen jarduketaz egokiro jabetu ahal izateko, Alderdiak ordezkariatza dituen erakunde guztietako kargu hautetsien jarduketa zehatzak azaltzea da biderik garbiena.

Alderdiak berak egituratzen ditu bere ordezkariak eguneroko jardunean erakunde guztietan zehazten duten politikaren gidalerro nagusiak.

Hortaz, balantze hau gertutzeko komenigarriagozat jo dugu, berau taiutzeko arduraren dugunok, Alderdiak arestian aipatu dugun politika zehatz hori erakunde guztietan garatzeko izendatu dituen arduradunek euren azken lau urte hauetan burutu duten jarduerari buruzko zuribidea egin dezaten.

Ildo horretatik, Balantze honek ondorengo jardueraren zuribidea jasotzen du: Eusko Jaurlaritzarena; Eusko Legebiltzarreko Euzko Abertzaleak legebiltzarkide taldearena; Madrilgo Kongresu eta Senatuko Jeltzaleen Taldeenak eta Europako Parlamentuko Diputatuarena.

Lehendabizi, gure Alderdia sortu zenetik ehun urte betetzen diren honetan, EAJren jardun politikoaren lehengo eta oraingo xede nagusiak ekarriko ditugu gogora: Euskal Herria nazioa dela, aberria dela onar dezaten lortzea; zor zaigun subiranotasun politiko osoa eskatzea; geure hizkuntza eta kultura, munduari begira dugun nortasuna, finkatu eta sendotzea; eta, batez ere, helbururik behinena: Europak onar dezala Euzkadi herri subiranoa dela, etorkizuneko European horrela egon behar duela integratuta.

Zuribideak aurkeztu baino lehen, Euskal Herriko Autonomi Elkartearen izan den botoaren bilakaera azaldu nahi genuke, eta bai laurteko honetan politikaren arloan garatu den ingurune orokorrari buruzko pare bat zertzelada labur ere, politikaren jardueran nolabaiteko eragina izan duen heinean.

BOTOAREN BILAKAERA

	E A J	PSE	HB	EA	PP	EB
Autonomikoak 90	2	202.736	186.410	115.703	83.719	14.400
Udal Hautesk. 91	2	193.416	172.666	118.242	76.196	17.250
Orokorrak 93	2	293.442	174.655	117.856	175.758	75.572
Europakoak 94	2	165.063	140.859	78.418	158.016	86.436
Autonomikoak 94	3	174.682	166.147	105.136	146.960	93.291
Udal Hautesk. 95	3	188.010	160.186	118.985	160.570	81.950

Koadro honetan azaltzen denaren arabera, Autonomi Elkartearen 6 aukera politiko sendo daudela ikus dezakegu, nahiz eta gorabehera txikiak izan bakoitzaren bilakaeran.

Horrela, EAJren joera zertxobait haztea izan da 1989ko Europarako Hauteskundeetatik aurrera (hauteskundeotan lortu baitzuen Alderdiak botorik gutxien: 201.809); hala ere, ez da iritsi 1984ko Autonomi Hauteskundeetako boto kopurura (gorengo emaitza izan baitzen ordukoa: 451.178 boto).

Aitzitik, bai HBk eta bai EAK zertxobait jaisteko joera erakusten dute.

Estatuko alderdiei dagokienean, PSEk beheranzko joera duela esan daiteke, gorabeherak izan arren; PPK eta EBk goranzko joera erakusten dute.

Koadroan ez dugu UA sartu, Araban 1994ko urriko Autonomi Hauteskundeetan lortu zituen 22.682 botoekin eta 1995eko Udal Hauteskundeetan bildutako 21.525 botoekin sendotu den joera politikoa izan arren; ezta EHE-ICV ere, nahiz eta berau, 1995eko Udal Hauteskundeetan Bilbon 31.934 boto lortu zituela-eta, aintzat hartu eta aurre egin beharreko mugimendua izan.

Bestalde, 1990etik 1995era egin diren hauteskundeak aztertzeke, E.A.E.n baino ezarririk ez dauden alderdien blokeak (EAJ-HB-EA) eta estatuko alderdien blokeak (PSE-PP-EB) erkatuz gero, alderdi espainolisten botoak etengabe hazi direla ikusten dugu, eta abertzaleen botoek ere goi-mailari eutsi diotela.

	<i>Abertzaleak</i>	<i>Espainolistak</i>
AUTONOMIKOAK 90	0591.814	300.895
UDAL HAUTESK. 91	588.724	286.832
OROKORRAK 93	580.419	544.772
EUROPEKOAK 94	452.903	409.508

Aipamen berezia behar du Nafarroako Lurralde Historikoak. Bertan, Alli UPNtik banatu eta Convergencia Democrática de Navarra taldearen buru bihurtuta plazaratu da hauteskundeetan, eta horren ondorioz ez dira bete Alderdiaren aldeko boto-aurrikuspenak, Nafarroako Foru Parlamentuari dagozkionean behintzat; hala ere, azpimarratzekoa da Alderdiak Udal Hauteskundeetan egin duen aurrerakada.

Kanpora begira ezin dugu esan EAJk nahi besteko aurrerapausua egin duenik, baina barne-arazoan alorrean, ostera, gogorarazi behar dugu Alderdiaren egoera Nafarroan bideraturik dagoela; izan ere, Nafar Buru Batzarrak Aberri Estatutuen artikulua jakin batzuen etendura kentzeko eskatu dio Euzkadi Buru Batzarrari, eta, ondorioz, Alderdi barruko kargudunak ohiko eran hautatu ahal izango dira, behin-behinekotasun aldia amaituta.

EAJren Iparralde Buru Batzarra 1990ean eratu zen modu ofizialean, Laburdi Buru Batzarraren ordean, Alderdiaren antolamenduaren barruko egitura berezi gisa.

Ezer baino lehen hauxe ohartarazi behar dugu: aurrera egin da, bai, baina ez hasieran ipinitako helburuetara iristeko adina.

Hori dela eta, Iparraldeko arduradunak saiatu egin dira Iparraldean Alderdiaren antolamendurako gutxieneko egitura ezartzen, plan baten bidez. Ildo horretan zenbait Uri Buru Batzar sortu dira, batzuetan alderdikide mordotxoak bilduta, eta horiexek izango dira EAJren oinarri Iparraldean. Beti ere, Iparralde Buru Batzarrak bihar-etzi Alderdiaren antolamendu orokorrean beste edozein lurraldetakoen antzera jardutea da helburua, eta hurrengo hauteskundeetan Euzko Alderdi Jeltzalearen izenaz parte hartu ahal izatea.

Giro orokorra:

Azken lau urteotako jardura politikoaren giro orokorrari doakionez, giro hori bi faktorek baldintzatu dutela esan genezake. Ondorengoak dira faktoreok: lehena, ekonomi krisia, 1993ko bigarren seihilekoan eta 1994ko lehenengoan eraginik larriena izan duen unean batik bat, ezen 1995eko lehen hiruhilekoan krisitik ateratzen ari garela erakusten diguten aieruak nahikoa garbiak diren; bigarrena, politikari guztiengan eragin sakona izan duena, politikako ustelkeriaren giroa, Filesa, Roldán, Gal eta hainbat eskandaluez orbandu baita bizitza politikoa osoa, zeren, eskandaluok estatu mailan gertatzen badira ere, eragin zuzena baitute politikari guztiengan eta goitik behera narriatzen baitute politika orokorraren eta, bereziki, politikariaren irudia.

I) *EUROPAKO PARLAMENTUKO DIPUTATUA*

1.- LEGEALDIRAKO HELBURUAK

Hautatua izan ondoren, uztailean zehar hausnarketa prozesu bati hasiera eman genion Euzkadi Buru Batzarrarekin batera. Prozesu honen helburua zera izan zen: Euzko Alderdi Jeltzaleak Europar Parlamentuan izan behar duen ordezkartzaren helburu nagusiak finkatzea bost urte hauetarako.

Eztabaidatu ondoren hiru hauexek azaldu genituen nagusiki:

{ Euzkadiko gizartearen eta sektore produktibo ezberdinen ordezkartza hartzen saiatzea Europar Parlamentuan. Talde hauek esate baterako honako hauexek izan daitezke: nekazaritza, arrantza, industri sektoreak, talde industrialak, sindikatuak e.a. Gure ustez helburu honek nagusitasuna izan beharko luke Europako instituzioetan egin beharreko lanetan. Kanpainaren zehar saldu genuen mezua euskaldunen gaiak Europako mahaietan erabakitzen direla ere izan zen, eta euskaldunok gure ordezkartza behar dugula gure ahotsa izateko. Beraz, helburu hau kanpainaren zehar izandako mezuarekin bat etorriko litzateke. Bost urteetako helburu nagusia lerro hauetan laburtuko litzateke: legealdia amaitu ondoren, euskaldunok zenbait gaietan Europan Euzko Alderdi Jeltzalearen ahotsa izan dugula gizartean barneratua egotea.

{ Bigarren helburu bat definitzen genuen: Estaturik gabeko nazio bat garen ezker, gu bezalako herriek erabaki-hartze prozesuetan izan behar duten partaidetza defendatzea, zera da, Euzkadiren autogobernua eta euskal partaidetza Europan hartzen diren erabakietan bultzatzea. Estatu Espainiarra

Europako Batasunean sartzearen ondorioz, Bruselan hartzen diren zenbait erabakik badute eragina gure eskuduntza edo kompetentzietan. Aldiz, euskaldunok ez daukagu erabaki horietako partaide izaterik oraingoz. Autogobernuaren defentsa hau Parlamentuaren ordezkari-ritzatik bultzatzeko hiru bide ikusi dira:

v Eguneroko lanean eta komunikabideetan, euskal gizartearen aurrean hau azaltzea: Euzkadin europartasuna barneratu beharra dugula, eta euskal erakundeek Europan euren burua agertarazi behar dutela. Euskal gizarteak mezu hori onartu eta bere egin dezan lortu behar dugu.

v Europar instituzioetan 1996an egindako erreformetan, Estatu ez garen botere politikoak (erregioak, herriak...) ahal den presentziarik haundiena izan dezagun erabakitze-leku guztietan bultzatzea.

v Europako Parlamentuan onartzen diren arau guztietan gure boterearen ahalik eta defentsarik gogorrena egitea (esate baterako, zenbait programetan gaien kudeaketa Estatuaren bidez eraman nahi izaten da, aurkezpen zuzena oztapatuz).

{ Hirugarren helburua, erlazioarena eta presentziarena izango genuke. Abertzale bezala presentzia izateak badu bere garrantzia, Europako bihotz horretan azaldu beharra dagoelako, Euzkadi izena duen nazio errealtatea dela, eta presentzia hau azpimarratzeko partaidetza serioa eduki beharra dago ahal den toki guztietan, baita Erakunde Ez Gubernamentalaren bitartez ere. Bestalde, gure kasua ez da bakarria. Beraz, elkar ezagutzea eta harreman sare bat sortzea guztiz beharrezkoa dugu gure errealtatea zabaltzeko eta etorkizuna lantzeko. Zentzu honetan, Alderdiak egiten duen presentzi lan hori, eta Eusko Jaurlaritzak eta gainontzeko erakundeek, herri nahiz lurraldeetakoek, egiten dutena ere, konplementatu nahi genituzke, Europako Parlamentutik horixe egin daitekeen neurrian.

Hauexek dira nagusiki gure eguneroko lanean aurrean ditugun helburuak. Hauen ondorioz, badago ere beste laugarren helburu bezala definitu daitekeena: ordezkari-ritza abertzale bakarria garen aldetik, geure erantzukizunaz ondo jabeturik egin behar dugu lan, eta probetxua atera berezitasun horri. Abertzaleen artean, toki guztietan egoteak ematen duen indarra eta herriaren zati handi baten ordezkari-ritza izateko gaitasuna dituen indar politiko bakarria, Euzko Alderdi Jeltzalea dugula. Eguneroko mezuen ondorioz, beste laugarren proiektio hau azaltzeko gauza izan beharko ginateke.

2.- EGITURA ETA BATZORDE EZBERDINETAN KOKAPENA

Dugun azpiegitura honako hauxe da: eurodiputatua eta Bruselan dagoen laguntzaile bat. Laguntzaile honen perfila baldintza hauekin aukeratua izan zen: alderdikidea, hizkuntzak menperatzen dituena, goi-mailako titulazioa duena eta Europar Instituzioei buruz jantzia dagoena ikasketa berezien bidez, eta bere izaera lan honetara moldatzen dena. Iñaki Rica donostiarra aukeratua izan zen.

Europar Parlamentuko batzordeen aukera hasieran agertutako helburu nagusienaren aurauera egin da, zera da, Euzkadiko gizartearen eta sektore produktibo ezberdinen ordezkari-ritza hartzen saiatzea Europa mailan. Horrexegatik lau batzorde nagusi aukeratu genituen. Hauetatik bi lehenengoei eman genien lehentasuna, baina negoziazio baten ondorioz beste biak ere hartu genituen:

v Ekonomia, Industria eta Moneta Politika Batzordea.

- v Arrantza Batzordea.
- v Gizarte Politika Batzordea.
- v Eskaera Batzordea.

3.- GAI SEKTORIALETAN IZANDAKO EKINTZA

3.1.-Arrantza arloa

Arrantza izan da, egoerak eraginda, Euzko Alderdi Jeltzaleak Europako Parlamentuan izan duen ekintzarik garrantzitsuena hilabete hauetan zehar. Arlo honetan egindako aktibitate guztia Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin eta Madrileko Talde Parlamentarioarekin koordinatua izan da, eta beti ere kontutan eduki dira arrantzaleen iritziak eta interesak, eurak direlako lanaren emaitzen jasotzaile eta onuradun nagusiak. Batez ere, bi atal nagusitan zatitu daitezke izandako lana:

{ Bolanten debekua.

Uztailean bertan, gure ordezkariak aukeratua izan ondoren, lanean hasi ginen Jaurlaritza eta baxura sektorearekin batera. Harremanetan ginela, abuztuaren hasieran itsasoan gatazka sortu zen eta gaia bat-batean komunikabideetara atera zen, uda honetako "izar informatiboa" bihurtuz. Hau dela eta, lehenetsun osoa eman genion gure eginkizunen artean.

Iraileko lehenengo astean Arrantza Batzordean eta gure ordezkariaren partaidetza zuzenarekin, Europako Parlamentua bolanten debekuaren alde azaldu zen 1995eko urtarriletik aurrera. Arrantza Batzordean izan genuen garaipena nahiko larria zela eta, irailean zehar harreman ugari izan genituen beste talde politikoekin eta beste Estatuetakordezkaritzekin, Osoko Bilkura edo Plenoan garaipen nabarmen bat lortu ahal izateko. Irailaren bukaeran ospatu zen Osoko Bilkura, eta bertan ia %75eko boto kopurua lortu genuen guztizko debekuaren alde. Honexek, gure arrantza sektorearentzat garrantzi handiko garaipen politikoa suposatu zuen.

Baina gai honetan Europako Parlamentuaren erabakia aholku bat besterik ez zen ezker, benetako erabakia Kontseiluaren eskuetan gelditu zen. Hau zela eta, urrian eta azaroan zehar Alemaniako Presidentziarekin, COREPERekin (Ordezkaritza Iraunkorren Batzordea), Frantziako hurrengo presidentziarekin, Peleokrassas komisarioarekin eta Arrantza Zuzendaritza Nagusiko (DG XIV) ordezkariarekin bilera ugari izan genituen, hauetako batzuetan Eusko Jaurlaritzaren laguntzaile bezala agertuz. Hala ere, asteak pasatzen ziren heinean gai honen konponbidea urruntzen joan da, eta Parlamentuak hartutako erabakia ahazteko zorian dago. Une honetan komisario berriarekin harremanetan hasiak gaude Kontseiluaren erabaki positiboa lortu nahian. Hau ez balitz lortuko, gatazka bizia izateko arriskua legoke hurrengo arrantza kanpainan.

Azken asteetan beste bi bide zabaldu ditugu Kontseiluaren erabakia mugitzeko asmoarekin. Alde batetik, Europar Batzordearen aurrean salaketa bat egin dugu joan den urtean Frantziako bolanta-untziek jasotako laguntzei buruz. Frantziako gobernuak ukatu egiten ditu ixilean emandako dirulaguntza hauek, baina hau demostratzea posible izango balitz, bolanten errentagarritasun eza begi bistan azalduko litzateke, Kontseiluaren erabakiarentzat garrantzi handiko froga suposatuz.

Bestalde, Estatu Batuetako erakunde ekologistekin harremanetan eta elkarlanean hasiak gara. Harreman hauen ondorioz, erakunde hauek epai prozesu bat hasia dute EEBBeko gobernuaren kontra, bolantak erabiltzen dituzten Estatuaren arrain-inportazioak mantentzeagatik. Legearen arabera, prozesu hau irabazi ezker EEBBek isun komertzialak burutuko lituzkete Italiaren eta, ondoren, Frantziaren kontra, Europako Batasunaren erabakia baldintzatuz.

{ PPC edo Arrantza Politika Bateratua.

Abenduaren bukaera baino lehen europar instituzioek Arrantza Politika Bateratuari buruz erabaki bat hartu behar zuten. Hau zela eta, Europako Parlamentua azaroan aztertzen hasi zen gai hau, bere aholkua Kontseiluari eman ahal izateko, honek erabaki bat hartu zezan.

Euzko Alderdi Jeltzaleak defendatutakoa bat zetorren Madrileko Kongresuan azaldutakoarekin eta sektoreak proposatzen zuenarekin: egonkortasun erlatiboaren printzipioaren aldaketa, Irish-Box-en sartzeko debekuaren desagerpen osoa, eta TAC (onar daitekeen harrapaketa-tasa) edo kuoten bidez egindako neurketa bat besterik ez izatea, zerrendaren sistemarekin bukatuz. Gure jarrerak Arrantza Batzordearen %40aren aldeotasuna besterik ez zuen lortu, irlandarrak, britainiarrak, frantsesak eta italiarrak aurka azaldu baitziren, beste batzuen artean. Azkenean Parlamentuarentzat ezinezkoa izan zen erresoluzio bat aurrera ateratzea gai honetan, akordio bat lortzeko aukerarik egon ez zelako. Azkenean Parlamentuak lerro orokor huts batzuk onartu zituen, Kontseiluaren erabakiaren aurretik tramitea betetzeko. Azkenik, Kontseiluak ezaguna den bere erabakia abenduaren 22an hartu zuen.

{ Beste zenbait ekintza ere izan ditugu denbora honetan. Hauen artean garrantzitsuenak ondorengoak dira: arrantza sektorearentzako laguntza estrukturalen erregionalizazioaren irizpideak, armadore gazteentzako laguntzak, Marokon arrantzatzen duten untzien arazoak, Kanadarekin izandako halibut edo fletan beltzaren gatazka e.a.

Balorazio orokor bat eginez, Euzko Alderdi Jeltzaleak Arrantza Sektoreen aurrean duen presentzia instituzionala Europan ere agertu duela azpimarratu behar da. Europako Parlamentuan Alderdiak Jaurlaritzan eta Madrileko Gorteetan eramaten duen arrantza politika sektorialari laguntza eman diogu. Puntu negatibo bezala azalduko genuke erabaki gehienak ez direla Parlamentuan hartzen, Kontseiluan baizik, eta hor euskaldunok presentziarik ez dugunez, gure ordezkariak nahiko ahula agertzen dela.

3.2.-Nekazaritza arloa

Arlo honetan, beste hainbatetan bezala, Euskal sektorearen defentsa aurrera eramaten saiatu gara Eusko Jaurlaritzari laguntza eskainiz eta Madrileko Gorteetan dugun Talde Parlamentarioarekin harreman zuzena izanez. Garrantzi handiena izan duten gaiak arlo honetan ondorengoak dira:

{ Ardoaren Merkatuaren Erakundea (O.C.M.).

Udazken honetan eztabaidatua izan da Europa mailan ardoaren O.C.M.aren (Merkatu Erakunde Amankomunaren) gaia. Arau honetan dagoen punturik eztabaidatuena eskaintza eta eskaeraren arteko desoreka izan da, eta honen ondorioz egin beharreko mahastien murrizketa. Honi buruz izandako ekintzak ondorengoak izan dira.

Euzko Alderdi Jeltzalea eta Coalición Canaria-k bultzatuta, intertaldea deritzon foro bat osatu da, "Ardoaren intertaldea" izena duena. Foro honetan mementu honetan 50 parlamentarik parte hartzen dute, eta bere helburuen artean kalitatezko ardoa errespetatzea O.C.M. barruan eta ardoaren gaineko zergak murriztea ditu.

Bestalde, hilabete hauetan zehar zenbait inizatiba hartu ditugu O.C.M.aren murrizketan kalitatezko ardoak kanpora gelditu daitezen, Errioxako ardoa defendatu nahian, batez ere. Norabide honetan, zenbait bilera mantendu ditugu Frantziako Presidentziarekin, Europar Batzordearekin eta beste parlamentariekin. Guzti honen ondorioz, apirilean Parlamentuan aztertu eta botatu den ardoaren txostenean bi aldaketa nagusi lortu izan ditugu:

v Parlamentuak ipar eta erdi Europan dagoen zerga-sistemaren kontra azaltzea, zerga proiektu bateratu bat proposatuz. Honek garrantzi handia izan dezake merkatuaren zabalkuntzarako.

v Europak ardoaren merkatua zabaltzeko konpromezua hartzea publizitate eta hainbat neurriren bidez.

Zoritzarrez, Errioxa eta bost urtetan zehar Europar Batasunarengandik produkzio murrizketarako laguntzarik jasotzen ez dituzten lurraldeak erreforma honetatik kanpo utzi zitezkeen emendakina, ez zen Nekazaritza Batzordean aurrera atera. Lortu genuen P.P.E. barruan bultzada Plenora zuzenean aurkezteko, eta Plenoan %41eko boto kopuruarekin ez zen aurrera atera. Kontrako botoa eman zuten PP, PSOE eta IUren botoekin, emendakina onartua izango genuen.

{ Patataren Merkaturako Erakundea (O.C.M.).

Produktu honek ere gero eta desoreka haundiagoak jasaten ditu produkzio eta merkatuaren artean, oreka hori lortzeko inongo mekanismorik ez duelarik. Hau dela eta, Merkatu hau erregulatua izan dadin Europar Batzordeak neurriak har ditzan zenbait pausu eman ditugu. Alde batetik, Jaurlaritza lagundu izan dugu Frantziako Presidentzia eta Europar Batzordearekin izandako harremanetan, eta bestalde, Parlamentutik eskaera zuzenak egin dizkiogu Europar Batzordeari hau bultzatu dezan.

3.3.-Kulturaren arloa

Atal honetan izandako partaidetza hilabete hauetan hizkuntza politikara mugatua egon da batez ere. Zentzu honetan, Hizkuntza Minorizatuen Batzordea osatu genuen beste hogeita hamar parlamentariarekin batera. Talde honen helburua "lobby" bezala jokatzeko izan da hizkuntza hauen defentsan. Lau helburu nagusi definitu ditugu, Euzko Alderdi Jeltzaleak proposatutakoak eta taldeak onartutakoak:

{ Hizkuntza hauek zabaltzeko dagoen Bulegoarentzako diru-kopuruaren gehikuntza.

{ Estatuaren Gobernu guztiak Hizkuntza Minorizatuen Karta onar dezaten presioa egitea.

{ Europar Batzordeak programa bat ateratzea hizkuntza hauek bultzatzeko.

{ Europar Batzordeak hizkuntzen inguruan sortzen dituen programetan (SOCRATES, LEONARDO e.a.) hizkuntza minorizatuen ofizialtasuna onartzea.

Helburu hauetatik, lehenengoa lortua izan da ia, eta laugarrenaren kasuan SOCRATES programaren barruan hizkuntza batzuk ere onartuak izan dira (euskara tartean).

3.4.-Ekonomia eta Industria arloa

Lau hilabete hauetan Europako Parlamentuan aztertu diren gaien artean, ez dira gehiegi izan Euzkadin eragin zuzena izan dutenak. Hala ere, gure partaidetza azpimarragarria izan da hurrengo arloetan:

{ European energiaren merkatu bakar bat lor dadin Europar Batzordeari zenbait eskaera egin zaizkio, honek gure altzairugintzarentzat izan dezakeen ondorioa kontutan hartuta. Bide honetatik ere, Europako Parlamentua "erresonantzia kaxa" moduan erabiltzen ahalegin guztiak egingo ditugu, Estatuak zentzu honetan presionatzeko. Arlo honetan izandako aktibitatearen ondorioz, Europar Batzordetik erantzun bat jaso dugu Estatuaren indarrean dagoen legea, LOSEN (Elektrizitate Sistema Nazionalaren Antolamenduari buruzko Legea) seriooki aztertzen ari direla esanez, bertan merkatu bakarraren kontrako jokaerak egon baitaitezke.

{ Bestalde, Estatu Espainiarrean dagoen gas inportaziorako monopolioen kontrako salaketa prozesu bat hasia dugu Europar Batzordean. Monopolio hau arrisku bihur daiteke gure industriaren hornidura ziurtatzeko.

{ Kooperatibentzat ere ekintza bereziak izan ditugu Europako Parlamentuan aztertutako Ekonomia Sozialari buruzko txostenean.

3.5.-Garraioen arloa

Arku Atlantikoaren Taldea osatu zen irailean Europako Parlamentuan, inguru honentzat garrantzizkoak diren proiektuak bultzatu nahian. Talde honetan, garraioen arloaren ardura Euzko Alderdi Jeltzaleak hartu du. Helburu honekin, Euzko Jaurlaritzak bere garaian txosten bat egin zuen, Europar Batzordearen proiektuen artean lehentasunak markatuz. Txosten hau gida bezala dugula, talde honen helburu eta lanaren plangintzak osatzen ari gara. Guzti hau 1996. urtearen hasieran aztertua izango da, eta ondorio hauek Parlamentuan aurrera ateratzen saiatuko gara Arku Atlantikoaren taldean dauden eurodiputatu guztien laguntzaz.

4.- GAI INSTITUZIONALAK

Datorren urtean ospatuko den Gobernuen arteko Konferentziarako, gure alderdiak Europako instituzionalizazioari buruz proposa ditzakeen aldaketak aztertzen ari gara. Lan hau, Alderdiarekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Kongresu eta Senatuko ordezkariekin batera lantzen ari gara. Lan talde honek orain arte egindako proposamenek honelako fruitua izan dute Europako Parlamentuan:

{ Europako Parlamentuko Erregio-Politika batzordeak txosten bat onartu du 1996ko konferentzia honetarako, konpetentzia zabalak dituzten erregioen partaidetza Ministro Kontseiluen erabakietan eskatuz. Emendakin honen defendatzailea, batzorde horretako kide den Isidoro Sanchez kanariarra izango da.

{ Bestalde, EAJ-PNV, UDC eta CC alderdiok lortu dugu, Parlamentuak konferentzia honetarako egin duen txostenean, mugaz gaindiko eta erregioen arteko kooperazioa Europan lehentasuna izan behar duten bost politika horietako bat izan dadila.

Hala ere, prozesu hau irekia dago eta hurrengo hilabeteetan zehar ildo honetatik segituko dugu, ahalik eta aldaketa gehienak sartuz.

II) EUSKAL SENATORE JELTZALEEN TALDEA

HITZAURREA

Euzko Alderdi Jeltzalearen mendeurrenaren atarian gauden honetan eta gure denbora- ikuspegiak azken bosturtekoa hartzen duelarik, hots, mapa politiko berria sortarazi ez ezezik Europako Ekialdeko egitura zaharrak iraitsi eta Europar Batasuna sendotu duten gertaerak izan diren epealdia, orain Senatuan parlamentu-lanetan ari garenek jazoera nagusiak azter ditzagun komeni da.

EUROPA

Europar Batasunari utzi dio lekua, Maastrichteko Itunbenari esker, eta horrek bi ekarpen interesgarri ditu Herrien Europaren alde dauden Euzkadi bezalako herrientzat.

Lehen-lehenik sorospidetasun printzipioa, Herri Administrazioaren jarduna eta eskumena hiritarregandik egotea helburua duena, eragikortasunaren mesedetan.

Bigarrenez, Herrialdeen Batzordea sortu da; orain aholkularitzako erakundea baizik ez den horrek etorkizunean herrialde, autonomi elkarte, lander eta antzekoen zeregina erakunde bidez gauzatu beharko ditu.

Halaber, joan den martxoan ikusi ahal izan dugu nola Schengen-go akordioak indarrean jarri diren haiek sinatu dituzten estatuetan eta nola Europa barruko ia muga guztiak desagertu diren; horien helburua hiritarren segurtasuna bermatzea izan da.

Europari loturik, Euskal Senatore Jeltzaleen Taldeak Herrien Europa federala aldarrikatzearen eta Estatua "ad extra" harremanetan eskusibitaterik ez edukitzearen aldekoa dela adierazi du, Euzkadiko berezotasuna gordetzeko xedez. Orobat, Euzkadik gure eskumeneko gaiek ukitzen dituzten Europako erabaki-prozesu guztietan zuzen eta benetan parte har dezan bultzatu dugu eta behin eta berriro eskatu dugu Euzkadik ordezkari zuzenak eduki ditzala berari dagozkion eskumenak inoiz eztabaidagai izan daitezkeen Europako foro ofizial guztietan. Aitzitik, eta jokaera arau hau gure jardun politiko osoan erabili behar da, konponbide sistematiko eta erabatekoak gaitzetsi ditugu, Konstituzioaren 2. artikulua eta Gernikako Estatutuaren 1. artikulua gogoraziz, biek ere Estatua nazionalitate eta herrialdez osaturik dagoela aintzatesten baitute, eta artikuluoak argitzeko eta zertan dautzan zehazteko eskatu dugu.

Gauzak horrela, ezin dezakegu bazter utzi agian Euzkadiri Europar Batasunaren eraikintzan eta horren erakundeek erabakiak hartzean eta erabakiok betearaztean partaide izateko bideak ireki dakizkiokeela. Hala ere, hobe dugu zuhurrak izan eta denborak eta emaitzek aukera hori berrets dezaten itxaron.

Azkenik, jardunerako arlo honetan Senatuan Europar Batasuneko Lurralde Erakundeei buruzko Txostena egin dela adierazi beharrean gaude; horren lana orain arte metodologia hutsekoa izan da.

EKONOMIA

Estatu Espainiarrean aski nabarmengarria da 92ko jazoerek utzitako "biharamuna": Expoa, Joku Olinpikoak, Madril Europako kultur hiriburua. Ospakizun handiratsu horiek zama astuna izan dute Espainiako ekonomiaren gora-beheretan eta gaur egun ere nabaritzen da haien eragina. Ikuspegi horretatik, orain bertan ere badirau orduan hasi zen krisi ekonomikoak.

Handik urtebetara krisi ekonomikoa sendotu eta areagotu ere egin zen, eta uneotan ere egiturek eurek kalteak izan dituztela igar daiteke, krisiak zenbat iraungo duen eta zer nolako ondorioak ekarriko dituen jakiten uzten ez dutenak, nahiz eta Estatuaren Gobernuak lan-berrikuntza berantiar eta apalari ekin; hain zuzen ere, Senatuan emendakina gehitu zitzaion horri, zeinen bidez autonomiei lan negoziazio eta harremanetarako eskumena aintzatesi baitzitzaien.

Ekonomiaren arloan izan diren lorpenen multzoan aipagarriak dira Etengabeko Lanbide Heziketari egin genizkion emendakinei oniritzi zietela eta Borondatezko Gizarte Aurrikuspeneko Erakundeak aintzatesi dituztela.

Ekonomiaren arloan Senatuak, autonomia eta lurraldeentzat garrantzizkoak diren gaiez ihardukitzeko joera duenez gero, bi txosten sortu ditu Autonomi Elkarteetan Batzorde Nagusian: bata autonomien finantzaketa sistemari buruzkoa, gure bereizgarritasunak defendatu behar direla eta gure Kontzertu Ekonomikoa orain arte bezala iraun behar duela dioena, eta bestea Europako fondoan eta Lurraldearteko Konpentsazio Fondoan ebaluaketei buruzkoa.

GARAPEN AUTONOMIKOA

Gaur egungo egoera ongi deskribatzen duen inguruabarra behin eta berriro, Eusko Jaurlaritzaren Estatutuaren garapenari buruzko akordioa oinarritzat harturik, Gernikako Estatutua bete dadila eskatzen duten mozioak onestea dugu; alabaina, mozio horiek ez dira inoiz betearazten, unea egokia ez dela esanez.

Euskal Senatore Jeltzaleen Taldeak proposaturik, Senatuan Lurralde Barrendegiei buruzko Txostena eratu da, Administrazioaren egoera kaskarragatik hiritarrei eragiten dieten arazoak zein diren antzemateko eta arazooi konponbideak aurkitzen saiatzeko asmoarekin, ikusirik Gernikako Estatuaren 8. artikuluari ia beraren eraginkortasun osoa kendu diola Konstituzio Auzitegiak. Hauxe duzue gure tesia: akordio politikoa lortzen saiatu behar dugu, barrendegietako hiritarrek euren destinoa erabakitzeko eskubidea dutela aitzatesten duen eta eskubide hori erabiltzeko bidea ematen duen manua sartu ahal izateko konstituzio berrikuntzan.

PSOEren barruan, Katalunian batez ere, "federalismo asimetrikoa" deritzonaren aldeko kideak badaude ere, gure ustez alderdi horretan nagusi da oraindik autonomien prozesua toki guztietan erabatekoa izateko itsumena -zorigaitzoko "café para todos" entzutetsua-, eta jarrera hori dela-eta azken zazpi urteetan ez da ia transferentziarik gertatu, alde batera utzirik 1994ko 9 transferentziak; gainera, lehorte horrek oraindik luzaro iraun dezake, batez ere Gizarte Segurantza, INEM, azpiegiturak (portuak, aireportuak, etab.), industria (ikerketa zientifiko eta teknikoa, eta Estatuak herri sektorean duen partaidetza) eta ekonomia-finantzak (kreditua eta banka, aseguruak, kreditu ofiziala eta balore-merkatua) gaiei dagokienez.

Laburbilduz, gaur egungo autonomien errealitate politikoan tentsioa nabaritzen da oraindik bere nazio nortasuna kostatzen ahala eta arrazoi osoz adierazteko gertu dagoen euskal nazioaren eta bere botere eta funtzioak inoren eskuetan jartzeko uzkur den Estatu mesfidagarri eta jomugarik gabekoaren artean.

SENATUAREN BERRIKUNTZA

1987 urtean bertan jada lehenbiziko harreman politikoak hasi ziren Senatua "lurralde ordezkartzen ganbara" bihurtzeko, Konstituzioaren 69.1. artikulua dioen bezala. Horretarako Senatuaren araudia berritzea aukeratu zen, Konstituzioa bera aldarazi beharrean, testu horrexetan ageri direlako Ganbararen gidalerroak, haren ospe politiko txarra eta aurkako iritziak izatea eragin dutenak.

Horrela bada, 1994ko urtarrilaren 11n Senatuaren Araudiaren berrikuntza onetsi zen. Horren xedea, Senatuak legegintzako biltzar motela izaten segitzea ekidin eta lurraldetasunaren arloko funtzioak egin dezala lortzea, ez da gauzatu. Senatuak Kongresuan gertatzen dena isladatzen du eta, horrenbestez, bigarren azterketarako ganbara legez dihardu, baina sistemari datzekion epealdi eurak ez dituela, ostera.

Araudiaren berrikuntzan jazo den gauzarik azpimarragarriena erakunde berri baten sorrera izan da, Senatuaren barruko "senatu txikia" edo izango dena, Autonomi Elkartearen Batzorde Nagusia alegia; honen funtzio gehienak informazioari lotuta daude, baina baditu batzuk legegintzazkoak ere.

Araudiaren berrikuntza Euskal Senatore Jeltzaleen Taldearen eta Unió Democrática de Catalunyaen aurkako botoak gora-behera onetsi zuten. Guk guretzat berebizikoak diren ondorengo bi gaiok ebatzi gabe utzi zirelako eman genuen ezezko botoa: berrikuntzaren iraunkortasuna eta gure bereizgarritasuna aintzatespena. Lehenengoaren helburua Senatu baliogarria egiteko era bakarra bazter ez uztea zen, hau da, Konstituzioaren berrikuntza, denborak frogatu duen bezala; bigarrenarena Senatuan gure nazio izateari egoki zaion mailako ordezkariak lortzea zen, gure eskumeneko gaiak batera azter ditzaten ekiditeko, bi aldetako harremanei kalte eginez.

Praktikan, "Senatu berriaren" eta beraren erakunde berriaren (Autonomi Elkartearen Batzorde Nagusia) funtzionamendua ustela izan dela esan daiteke.

Euskal Senatore Jeltzaleen Taldeak kontu handiz prestatzen ditu aspaldion Batzorde horretan izaten dituen agerpenak, eraginkortasunez eta gure ideia politikoi atxikirik. Beraz, eguneko aztergaien zerrendan interesatzen zaigun ezer egonez gero, lege-proiektu bati buruzko irizpena esaterako, joan egiten gara bilkurara. Bestela, helburua autonomi elkartearen presentzia erabatekotzea besterik ez denean, ez gara agertzen handik. Horixe berori egin du Lehendakariak ere; autonomiei buruz 1994an egin zen debate hartan eta Konstituzioaren berrikuntza aztertzen diharduen Txostenean egon ez delako, erabat sumindu da Parlamentuko Talde Sozialista eta Ganbararen lehendakaria.

Gaur egun, denok dakigun bezala, Konstituzioa berritzeko Senatuko Txostena sortu da; bertan garai bateko konstituziogile gehienak eta autonomien lehendakari gehienak bildu dira. Ezin jakin liteke nondik joko duen Txosten horrek, oraingo egoera politikoa zalantzaz beterik dagoelako Alderdi Sozialista Parlamentuan kolokan egonik eta oposizioak eta komunikabideek egiten dizkioten etengabeko erasoengatik.

BALORAZIO POLITIKOA

Azpimarratu beharrekoa da V. legegintzaldia hastean PSOEk eta EAJ elkarrengana hurbiltzeko ahaleginak egin zituztela, lehenengoetan Estatuko Gobernuaren parte hartzea zela-eta eta geroago legegintzaldirako itunbena egiteko. Bi asmok kale egin zuten, sozialistek ez baitzuten nahi izan inolako konpromezurik Estatutua garatzen jarraitzeko eta egoera horrek azkenean ohiko harremanak dei ditzakegunak ekarri zituen; harremanok Gobernu Sozialistak demokrazia bultzatzeko politika deitu zionaren markoan burutu ziren.

Oraingo egoera politikoa ere gatazka ugari dago, ustelkeria kasuen kariaz batik bat, bereziki GAL kasua, krisi ekonomikoa eta monetarena eta atzerriko inbertsiogileen konfidantzarik eza. Prentsak ere, mailarik beherenekoak gehien bat, egoera honetako alderdirik txarrenak azaldu eta plazaratzen atsegin du. Oposizioa, PP buruzagi delarik, ezezkorra da eta ez da gauza jendeari ilusioa eman diezaiokeen hautabidezko egitarau politikoa eskaintzeko. Horrez gainera, PPK ez du buruzagi politikoa sendoa, eta EBk, berriz, ez dauka gobernura iristeko batera aukerarik.

Bestalde, PSOEn Gobernuak uste du ekoizkortasunaren gehikuntzatik, eta esportazioen eta turista kopuruaren igoeratik -horiek pezetaren devaluazioak eragin ditu, ez elkarlehiak berak- datorren ekonomiaren aurrerakadaz eta Europar Batasunaren lehendakariak izateak emango dion itxura hobez baliatu ahal izango dela hurrengo hauteskunde orokorre (1996?) oraingoei baino itxaropen hobearekin heltzeko.

Hori hala den bitartean, hiritarrak, politikoen jardunaren destinariak direnak, kezkatuak bizi dira orain eta etorkizunean ez dute ikusten funtsezko arazoak konponduta egongo direnik: langabezia, pentsioak, marginazioa, osasun arreta, bakea eta indarkeria, etab.

Prentsak egunero agerian uzten dituen eskandaluez nazkatuak, herritar xehea politikarienganako konfidantza galtzen ari da; horrela, herri hau aurrera ateratzeko ahaleginetan dabilzan politikari zintzoen lana askoz zailagoa da.

Euzko Alderdi Jeltzaleak, bere oinarrizko ideiei uko egin gabe eta egintzetan oinarritutako politika eraginkorra eginez, hautesleen konfidantza erakarri behar du. Orain ospatzen ari garen mendeurrena une egokia da beti gure iraganari begira egoteari utzi eta zerbait eraikitzeko asmoarekin oraina aztertzen has gaitzen, etorkizunaz pentsatzen, eta abadagunea dugu, batez ere, gizarteari gure atea zabaltzeko, herri hau -Euzkadi- maite duten herritar guztiei, horietako bakoitzaren sinistea, ideologia, arraza, hizkuntza eta egoera sozial eta ekonomikoa zein den begiratu gabe.

III) DIPUTATUEN KONGRESUKO EUSKAL PARLAMENTARIEN TALDEA

AURREKARIAK

1993ko ekainaren 6an, legegintzarako hauteskundeak izan ziren Estatuan. Euzko Alderdi Jeltzaleak bost diputatu eta hiru senatore lortu zituen. Eraitza hau ez zen itxaron bezain ona, batez ere, PSOEren gehiago osoa amaitzen hasi zela nabaritzen zelako eta gaur egungo legegintzaldian abertzaletasunak eragin politiko handiagoa izango zuela eta, gainera, bere botoek garrantzi nabaria izango zutela uste zelako.

Beraz, gogora ekarri behar da 1982ko urrian EAJk zortzi diputatu lortu zituela sozialismoak boto kopuru ikaragarria eskuratu zuen garai hartan, hau da, sasoi onean zegoenean eta hauteskundeetan irabazle irten zenean, iragartzen zuten aldaketa hura gauzatzeko asmoarekin.

Legegintzaldi hartan (1982-1986), LOAPA lege bortitza ezarri zen eta Parlamentarien Taldeak Gernikako Estatutua urratu nahi zuten lege organikoei aurre egin behar izan zien.

1986ko ekainaren 6an egin ziren hauteskundeetan, Kongresuko Euskal Taldean sei diputatu zeuden. Barne krisia gure betiko hautesleriari eragin kaltegarria egiten hasi zen, batez ere sei diputatuetik bi Talde Mistora pasatu zirenean. Gure Taldean lau diputatu geratu ziren, eta horiek Talde Mistoko bi diputatuek EAJri etengabe egiten zizkioten erasoei aurre egin behar izan zieten. Hura legegintzaldi gogorra izan zen. PSOEek edozein euskal ekimen zapaltzen zuten. Eta barne krisiaren ondorioz makalduz zegoenez gero, Alderdiaren irtenbide bakarra PSErekin legegintzaldirako itun bat sinatzea izan zen.

Baina legegintzaldi horretan, ordea, gero eta eremu politiko zabalagoa berreskuratzen hasi ginen, batez ere ondoko gertaerengatik: EAK politikan erabili zuen bide okerragatik, Ajuria Eneako Itunaren

deialdiak izan zuen arrakastarengatik eta indarkeriaren aurka egin zen manifestazio erraldoiarengatik, alegia, Lehendakaria eta Alderdiaren garrantzia nabarmendu zuen manifestazioa- rengatik.

1989ko urrian gauzak aldatzen hasi ziren. PSOE gehiengo osoa galtzeko zorian egon zen, gehiengo oso hori kolokan zegoelako, Almeria, Pontevedra eta Melillako emaitzen menpe. Hura zela eta, gure Taldeak arreta osoa eskuratu zuen haiek Legegintzaldirako Ituna egitea proposatu zigutenean; baina, azkenean, itun hori ez zen sinatu. Handik sei hilabetera, Alderdi Sozialistak beharrezkoak zituen 175 diputatuak lortu zituztenean, bere zapalkuntza politikarekin gobernatzen jarraitu zuen, nahiz eta ahalegin handiak egin Katalanen Taldea eta Euskal Taldea ondoan izateko. Horrek Euskal Herriaren beharrezkoen ordezkari izateko aukera eman zigun, eta ondorioz, apurka-apurka zatiketaren erruz galdu genuen eremua berreskuratzeko aukera ere bai.

Ez da ahaztu behar gurea bezalako Parlamentari Talde batek, 1917tik hona Madrilen Alderdi gisa jarduten duenak, hiru eginkizun nagusi dituela Parlamentuan: Madrilgo Gobernuaren politikak, ekimenak eta eguneroko ekintza kontrolatzea, Estatuaren eskumenak inolako lege egitasmok urratu ez ditzaten begiratzea eta, azkenik, Madrilen Euskal Herriaren ordezkari azaltzea Espainiako edo nazioarteko politika ofizialaren arloan egiten diren foro eta eremuetan, baina beti ere gure botoak une jakin batzuetan politikan izan dezaketean eragina ahaztu gabe.

Legegintzaldi hartan 92. urtea nabarmena izan zen; urte horretan, ospe handiko hainbat gertaera izan ziren Sevillan, Madrilen eta Bartzelonan eta bai European ere, Autonomi Ituna, Konstituzio Auzitegirako Magistratuen hautaketa, Araudia aldatzeko saiakera, hauteskundeen gastuen txikipena eta gizarte ekimen batzuk, adibidez, Dekretazoa deritxona, nahiz eta gu guztiz azken horren aurka azaldu.

Estatuaren Aurrekontu Orokorrei, legeetarik garrantzitsuenari, berriz ere osotarako emendakina egin zitzaion. Kontu Auzitegian gure jarrerak Katalanen Taldeak sozialisten ekimenen alde ez agertzea eragin zuen; Autonomi Ituna delakoaren alde azaltzeko deitu zigutenean, hori egitera ukatu ginen eta, ondorioz, Itun hori PPK eta PSOEek besterik ez zuten sinatu; hau da, akordio hori hasiera-hasieratik zapuzturik zegoen. Azkenik, Konstituzio Auzitegirako Magistratuen hautaketa ezetsi genuen, zeren eta Erakunde horren izan beharra zalantzan jartzen baikenuen.

Hauteskundeen gastuen txikipenari eta Araudiaren aldaketari dagokienean, Katalanen Taldearekin, CDSrekin eta PSOEekin akordioak sinatu genituen. Arlo horretan guk, Parlamentari Taldeak eratu behar direnean, gaur egungo artikulua errespetatzen jarraitzeko asmoa izan dugu, nahiz eta IU, PP eta Talde Mistoak hori zalantzan jarri eta haserre egon EAJK bost diputaturekin bere Taldea duelako.

Europaren eraikintzari dagokionez, Maastrichteko Itunbenaren onespeneren alde egin genuen baina mesfidantza apur batekin, eta bertan zeuden hutsuneak salatu genituen, ondo dakigun arren Alemaniaren batasunak prozesu horren burutzapena zalantzan jarri duela eta, ondorioz, prozesua bera lortzea zaila dela.

Beste alde batetik, hainbat ekimen egikaritu genituen, Herrialde Batzordeari delakoari dagokienean, Madrilgo Gobernuak bere jarreraz berriz hausnar zezan eta Europako plataforma berri honetara autonomietako ordezkariak bidal zitzen

GAUR EGUNGO LEGEGINTZALDIA (1993-19--)

Guztiok dakigu PP eta PSOEn arteko lehia nagusi izan zen hauteskunde kanpaina haren ondorioz gure emaitza ondokoa izan zela: aurreko legegintzaldian genuen diputatu kopuru bera, baina boto gehiago lortu genuen; horri esker, gure bost diputatuak mantendu ditugu, hau da, Parlamentari Taldea eratzeko behar diren bostak. Kopuruz, Taldearentzat onuragarria izan da, Mahaian Emilio Olabarria egotea lortu dugulako.

Izan ere, aurreko legegintzaldian baino egoera hobean gaude orain, batez ere ondoko egoera kontutan hartzen badugu: PSOEek gehiengo osoa galdu duela, EE eta EuE jadanik ez daudela Kongresuan, HBk bi diputatu galdu dituela eta EAK diputatu bat galdu duela eta, gainera, diputatu horrek eta aurrekoak erabat jarrera eta jarduketa ezberdinak dituztela. Hau da, 5 + 1 gara. Hortaz, euskalduntasunaren ezaugarriak zeintzuk diren argiago geratu da Madrilan eta Parlamentuan dugun eginkizuna hobetu egin da, nahiz eta PSOEek, Estatuko Erakundeak berriztatzeko (Epai-Boterearen Kontseilu Nagusia, Arartekoa, RTVE, Segurtasun Nuklearrerako Kontseilua etab.), CiUekin egin duen ituna, eta PPrekin egin duen sasi-ituna direla eta, itxura batean gure jokabide politikoak eta eraginak gora-beherak izatea ekarri.

Dena den, PSOEek Parlamentari Talde batekin ere itun sendo eta publikorik sinatu ez duenez gero, Lege Egitasmoetan eta hainbat ekimenetan testuen funtsa hobetzeko aukera eman digu eta, aurrekontuei buruzko eztabaidan gertatu zen bezala, eta horren aurkako botoa eman arren, Euzkadi-erentzako 500 milioi pezetako emendakinak onar diezazkigutela lortu dugu.

Gaur egun, PSOEek, erakundeetarako karguen hornikuntzaren ondoren, "Demokrazia bultzatuz" esakunean oinarriturik, eta legegintzaldiari dagokionez, ahal duen neurrian egitasmoak ateratzen eta egunean-egunean politika egiten dihardu.

Nabarmendu beharra dago gure Taldeak, Napar Buru Batzarrak eskaturik, Nafarroako Gobernuari dagozkion gaiei buruz galdetzen diola, Herrialde Batzar horrek bere eskumenekoak diren gaiei buruzko erantzunak aurkez ditzan.

Madrilgo Gobernu ahul dagoenez eta, guztiok ondo ezagunak ditugun eskandaluak direla bide, gero eta egoera txarragoan dagoenez gero, Madrilgo politika erabat publiko bihurtu da; hala ere, Parlamentuan erantzun gogorra izan da, nahiz eta, beste gai batzuek sortzen duten iskanbila dela eta, horren berririk zabaldu ez.

Esan beharra dago orain arteko legegintzaldian Madrilgo Gobernuak eta oposizioak beste legegintzaldi batzuetan baino ekimen gehiago burutu dituztela.

Alderdi sozialistak hautespen batzuetan bakarrik geratu behar ez duenez gero, Euskal Taldearen jokabide politikoa eraginkorragoa da eta, horri esker, hainbat gauza lortzen ditugu, hala nola, legeak hobetzea, Estatutua urra diezaigutela ekiditea, edo, aurrekontuetan gertatu den bezala, gehiengo osoa zutenean inola ere onetsiko ez zituzten partidak onets ditzatela lortzea.

Horren adibide argi bat emango dugu.

Behin batean, Rubio Kasuaren Ikerketa Batzorde horren buru izateko eskatu ziguten. Haien ustez, sinesgarritasuna genuen eta gure laguntza behar zuten. Hasieran, ezetz erantzun genien. Orduan, hori egitearen orde zer nahi genuen galdetu ziguten. Eta orduan, Estatutuen garapena desblokeatzeko esan genien.

Beraz, 1987tik etenda zeuden transferentzietan, telefonoz lau ordutan negoziatu ondoren, akordioak lortu ziren. Horrela lortu zen bost transferitzea; horietako bat Obra Hidraulikoen transferentzia

garrantzitsua eta baliotsua izan zen. Horren orde, hurrengo egunean, EAJ-PNVko diputatu bat Batzordeko Lehendakari hautatu zuten.

Adibide honen bidez argi azaltzen da Madrilen politika egunean-egunean egiten dela, eta gauza batzuen alde agertzen garela, beste gauza zehatz batzuk lortzeko. Gai batzuen alde, eta beste batzuen aurka azaltzen gara, batzuetan abstenitu egiten gara, abagune egokiagoa probetxatzeko.

GAUR EGUNGO EGOERA

Politikan tirabira larriak izan ditugu 1995. urte osoan zehar. José María Aznarren aurkako atentatua, PPri gehiengo osoa lortzeko aukera handiagoak eman dizkiona; Barne Saileko lau karguren aurka GAL kasuarengatik auziperatze auzia jartzea, Alderdi Sozialistaren ahultasun nabaria, politikan eta gizartean ageri den sumindura giroa, maiatzaren 28an izan diren udal hauteskundeek eta PP hiri nagusietako alkatetzen jabe egitean politika mapan gertatutako aldaketak politika-jardueran eragin duten koloka-giroa, IUk izan duen gorakada, gobernuaren makaltasuna eta bizi izan dugun behin-behineko egoera, horrek guztiak ez du inolako zerikusirik PSOEek gehiengo osoa zuen eta politikaren arloan ezer gutxi egin zitekeen garai harekin.

Euskal Taldeak jokabide zehatz bat du. Nahiz eta kopuru txikia izan, euskalduntasuna ordezkaturik dago, egon ere; baina politikan garrantzitsuena botoak dira, eta horiek, zoritxarrez, gutxi dira.

Hortaz, zerbait egiteko premia larriari gaude, abertzaletasun demokratikoa hauteskunde hauetan baturik ager dadila nahi badugu; horretara, PPK gehiengo osoa ez lortzea eta aurreko egoera bera ez errepikatzea ekidino dugu. Euskaldunentzat, gehiengo osoak benetan kaltegarriak dira.

Eta aurten ahal dugun politika egingo dugu, baina beti ere gure kanpo itxura hondatu gabe Euskal Herriaren interesen alde agertuko gara, gure interesekoa ez den guztia arbuatuko dugu, eta GAL kasuan edo horrekin zerikusia duen beste edozein kasutan ikerketa egiten edo erantzukizunak eskatzen lehenak izango gara. Ondore guztietarako, Oposizio Taldea izateari eutsiko diogu.

Argi izan behar dugu euskaldunentzat gure Parlamentua Gasteizko Legebiltzarra dela, eta etorkizunean, horrez gain, Europakoa ere bai. Baina hori gertatu arte eta legeak, ekimenak eta politikak Madrilen onesten diren bitartean, foro horretan egon behar dugu eta bertatik gure Estatutua itxuragabeturik gera ez dadila eta onesten diren lege egitasmoak gure eragina izan dezatela lortu behar dugu.

Etorkizunean izan daitekeen itun politikari dagokionean, hori Batzarrak erabaki beharko du, Madrilgo Gobernuak 1993ko ekainean egiteko eskatu zionean egin zuen bezala.

Eguno egoeran ez da batere erraza asmatzea eta egiten dugun guztia azaltzea, baina egoera hau Espainiko gehiengo oso baten pean bizirik irauten saiatzea baino mila aldiz hobea da, zeren eta Espainiako gehiengo osoak Euskal Herriarekiko erakutsiko duen sentiberatasuna Wensminster-ko Parlamentuak Gales-ekiko erakusten duen bera izango da, hau da, inolako sentiberatasunik ez.

Hitz batean, 1977an Euskal Taldeak zortzi diputatu lortu zituen, 1979an zazpi, 1982an zortzi eta gaur egun bost besterik ez gaude, eta beraz, gure erronkak ondokoa izan behar du: Euskal Taldeak Kongresuan eta Senatuan behar den besteko kopurua izatea, zortzi haiek balira hobe, politika sendoa izateko gure egunean egunekoa eragiten duen Parlamentu Foro hartan.

IV) EUSKO LEGEBILTZARREKO EUZKO ABERTZALEAK TALDEA

Euzko Abertzaleak deritzon legebiltzarkide taldeak Euzko Jaurlaritzaren alde jardun du Legebiltzarrean 1992tik 1995era bitarteko laurtekoan ere, ohi duen legez, nahiz eta aldeko jarrera horretan ñabarduraren batzuk nabaritu diren Euzko Legebiltzarrerako 1994ko Hauteskundeetan ostean, Euzko Legebiltzarraren eta Euzko Jaurlaritzaren osaketan aldaketak gertatu ostean, hain zuzen.

Euzko Abertzaleak legebiltzarkide taldea, beraz, Euzko Jaurlaritzaren alde eta zerbitzuan diharduen taldea dugu.

Hori dela eta, talde honek ez du ekimenik Legebiltzarrean. Izan ere, legegintzarako ekimena Euzko Jaurlaritzaren esku dago, Lege Egitasmoen bitartez; Legebiltzarra kontrolatzeko ekimena, berriz, oposizio taldeei dagokie: ez-legezko proposamenak egin, Jaurlaritzako kideei Osoko Bilkuran nahiz Batzordeen aurrean agertzeko edo erantzuteko eskatu, argitasunak eskatu, eta abar.

Euzko Legebiltzarra sortu zenetik igaro diren 15 urteotan aldatu gabeko jarrerari, azken Legegintzaldi honetan, 1994ko Hauteskundeetan ostean, beste osagai bat gehitu zaio; izan ere, EAJ, PSE-EE eta EAK sinaturiko Gobernu Itunaren klausula batek dioenez, Jaurlaritzaren aldeko hiru Legebiltzarkide Taldeok elkarrekin ados jarri behar dugu Legebiltzarrean edozein ekimen aurkezteko, baita Euzko Jaurlari- tzarekin zerikusirik ez dutenak ere (Madriko Gobernuari edo nazioarteko ekimenei dagozkienak), eta adostasun hori ez da beti erraz lortzen.

Euzko Jaurlaritzaren alde dihardugun hiru Legebiltzarkide Taldeok geure arteko harremanak beti honela antolatu ditugu: Talde guztiok ados jarri behar dugu, oposizioak Euzko Jaurlaritzaren politikari buruz aurkezten dituen ekimenak onartu aurretik, nahiz oposizioak Lege Egitasmoei eginiko emendakinak izan, nahiz oposizioaren beste edozein ekimen izan, batez ere ez-legezko proposamenak direnean.

Gauzak horrela izan arren, itxura batean, eta bereziki komunikabideek ematen duten irudiaren arabera, oposizio taldeen eskuetan dago ekimena, eta eurak omen dira, azken batean, gehien mugitzen direnak.

Hala ere, azpimarratu beharra dago Euzko Jaurlaritzaren alde dauden taldeak izaten direla lanpetuenak. Oposizioak ekimenen bat aurkezten duen bakoitzean, elkarrekin eta ekimena doakion Euzko Jaurlaritzako Sailarekin koordinatu beharra dute, eta Osoko Bilkuraren edo Batzordearen aurreko agerraldia prestatu, oposizio talde guzti-guztien emendakin edo ez-legezko proposamen guztietarako. Gainera, gure botoek onarpen edo ukapenaren ondorio politikoa ekarriko dute, proposamenak Osoko Bilkuran edo Batzordean onartzea ala ez gure botoen menpe dago eta.

Amaitzeko esango dut Euzko Abertzaleak legebiltzarkide taldearen jardura oposizio taldeena baino garrantzitsuagoa eta trinkoagoa dela, berak komunikabideetan hainbesteko zarata egiten ez badu ere.

1.- EUSKO LEGEBILTZARRERAKO 1994KO HAUTESKUNDEAK

Eusko Legebiltzarraren osaketa aldatu egin da 1994ko hauteskundeen ondoren. Desagertu egin dira EUSKADIKO EZKERRA zena eta EUSKAL EZKERRA. Talde biok euren aztarna utzi zuten Legebiltzarrean; Euskadiko Ezkerrak, Eusko Legebiltzarra sortu zen unetik 1991an taldea bera zatitu zen arte, eta Euskal Ezkerrak, berriz, ordutik Eusko Legebiltzarra 1994ko abuztuan desegin zen arte.

Beste aldaketa bat gertatu da: EZKER BATUA sartu da Eusko Legebiltzarrera bere sei legebiltzarkideekin, eta PP indartu egin da hamaika legebiltzarkide izateraino; PSE-EEko Taldeko legebiltzarkideen kopurua, oster, 16tik 12ra jaitsi da; HBko Taldekoena, 13tik 11ra, eta EAKoena, 9tik 8ra. EAJk eta UAk eutsi egin diete nork bere legebiltzarkide kopuruari: EAJk 22 ditu, eta UAk, 5.

Aldatu egin da, baita ere, Eusko Jaurlaritzako koalizioa, eta ondorioz Eusko Legebiltzarrekoa ere bai. Aurreko legegintzaldian, alderdi abertzaleen (EAJ, EA eta EEren) Hirukoitza hautsi eta gero, ordurarteko Gobernu Ituna desegin eta horren ordeztu EAJk, PSEk eta EEko legebiltzarkide bakarra zen Markiegi jaunak eginiko ituna etorri zen. Oraingo legegintzaldian, oster, 1994ko hauteskundeek EAJ-PSE/EE-EA hirukoitzera ekarri gaituzte. Hiru taldeotako legebiltzarkideen kopuruak (22-12-8) batuta, gehiengoa geuk dugu: 75 legebiltzarkideetatik 42.

2.- OPOSIZIOKO TALDEEKIKO HARREMANAK

Orain arte azaldu dugunaren arabera, aztergai dugun hirurtekoa bi alditan bana daiteke, Oposizioko Legebiltzarkide Taldeekiko harremanei dagokienez: batetik, 1992-1993 urteak eta 1994ko lehen seihilekoa, eta bestetik, 1994ko bigarren seihilekoa eta 1995. urtea.

1992. urtearen hasieran, hirukoitza bagenuen, EAJk, PSE/EEk eta EEko legebiltzarkide bakarrak osatutakoa; guztira, 39 legebiltzarkide ginen (22+16+1) Eusko Jaurlaritzaren alde, Eusko Legebiltzarrak 75 kide zituelarik

Urte horretan bertan, EA eta EUEk aurrera egin zuten bategite prozesuan, eta oposiziotik gogor aritu ziren EAJ-PSE itunaren kontraesan ideologikoak nabarmendu nahian. Beraz, euren jardueraren helburu nagusia bi gauza hauek azpimarratzea izan zen: ideologian hain desberdinak ziren bi alderdik Jaurlaritza osatzea burugabekeria zela, eta, alderantziz, hiru indar abertzaleek (EAJ, EA eta EUE) osatu zuten eta hain gutxi iraun zuen Jaurlaritza bera zela egokiena, eta Autonomi Estatutua ondoen zainduko zuena.

EA eta EUEren arteko elkartasunak goi-goian iraun zuen 1992ko bigarren seihilekoan eta 1993ko lehenengoan, baina 1993ko ekaineko hauteskundeetan porrot egin eta behera hasi zirenean, harremanak eten egin ziren. EUEk, etsi-etsita eta EAREkiko harremanez gogaiturik, EAJrengana jo zuen. Azkenean, EUE desagertu egin zen.

Bitartean, oposizioko beste bi legebiltzarkide taldeek, PP eta UAk, oposizioko jarrera nahiko baketsuan jarraitzen zuten. Askotan, jaramon gehiago egiten zioten Arabako Lurralde Historikoan elkarrekin zuten borrokari, edo, PPren kasuan, Estatu osoan PSEren kontra zeukan erronkari.

Eusko Legebiltzarra osatzeko 1994. urteko urriaren 23an egin ziren hauteskundeen ondoren, eta haien emaitzen eraginez, oposizioak beste jokabide bat hartu zuen.

Aldaketaren adierazgarri gisa, EE eta EUEren desagerpenaz gainera, IUren agerpena azpimarratu behar dugu. Alderdi horrek eskuetara heltzen zaizkion ekimen guztiak aurkezten ditu, aurrera atera ahal izango dituen ala ez kontuan hartu gabe.

Hain zuzen ere, gobernuz kanpoko erakunde, auzo elkarte edo erdi-antolatuturik dagoen talderen batek ekimena aurkezten badiu, IUk sinatu eta Legebiltzarrean aurkeztuko du eztabaidatzeko.

Azpimarratzekoa da HBren jarrera aldaketa. Talde hau, Eusko Legebiltzarra sortu eta ondorengo 14 urteetan, ez zen Legebiltzarraz arduratu, ezta Legebiltzarrerara agertu ere aldi bakan eta berezietan baino, adibidez, Lehendakaria hautatzeko saioa edo Politika Orokorrari buruzko eztabaidaren bat egiten zenean.

Baina 1994ko urriaren 23ko Hauteskundeez geroztik HB aldian aldian joaten da Bozeramaleen Batzarretara, ekinbide batzuk aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Osoko Bilkurari, eta oraindik Batzorde eta Osoko Bilkuretara noizean behin baino agertzen ez bada ere, zalantzarik gabe beste jokabide bat hartu du Legebiltzarreko eginkizunei buruz. Beraren jarduera Eusko Legebiltzarrean ez da behar adinakoa, baina hala ere %50eko urratsa egin du ohiko mailarantz. Jarrera horri esker, gaur egun HBko legebiltzarkideek soldata eta gainerako ordainsariak jasotzen dituzte, beste Taldekoen antzera.

PP eta UAk orain arte bezala jarraitzen dute, gizabidez jokatu, baina oposizioan beti ere, bereziki Herriaren eraikuntzari dagozkion arazoetan.

Azkenik, bi gauza nabarmendu behar dira: EA hirukoitzean sartu da, hasieran zalantzatan ibili bazen ere, oposizioko talde bati dagokion jokaerari eutsi nahian edo, argi eta garbi eduki arren Eusko Jaurkitzaren alde jokatu behar zuela; eta PSE-EE egoera berezian sartu da, PSOE alderdi nagusiaren eskandaluen eragina Euskal Herrira zabaldu delako. Gogoeta hauek idazterakoan ezin dugu igarri zein bide hartuko duen; ez dakigu beraren hautesleengan nolako eragina izango duten Filesa, Roldán eta gainerako eskandaluek eta, Euzkadin bertan, GAL sareen ingurukoek, ezta arazo horiek argitzen direnean zer gertatuko den ere.

3.- LEGEBILTZARREKO JARDUERA NAGUSIAK

Atal hau hiru zatitan banatuko dugu: a) Lege garrantzitsuenak; b) Gai bakarreko Osoko Bilkurak, eta c) Beste jarduera batzuk

a) Lege garrantzitsuenak:

Legebiltzarrak onetsi dituen legeetatik hurrengoak azpimarratuko ditut:

{ Euskal Zuzenbide Zibilaren egunerapenari buruzko Legea. Araba eta Bizkaiko Batzar Nagusiek agertu zuten interesa Eusko Legebiltzarrak legebidezkotzat jo zuen eta tramitera onartu zien ekimen bana, teknikari eta aditu talde batzuei eskatutako azterlanen emaitza zirenak. Legebiltzarrak oso-osoan onartu zituen Bizkaia eta Arabako Batzar Nagusiek aurkezturiko testuak. Sistemikaren aldetik aldaketaren batzuk egin zizkien, Euskal Zuzenbide Zibil osoa lege testu bakar batean biltzeko, testu horren barruan Foru Zuzenbideak liburu banatan jarritz. Helburu horrekin, Zuzenbidearen iturriak

bateratu egin zituen, eta Gipuzkoako Zuzenbide Zibil bereziari buruzko klausula iragankor bat gehitu, Gipuzkoako Lurraldeko Batzar Nagusiek hala eskatuta. Hori guztia Euzko Abertzaleak legebiltzarkide taldearen ekimenez egin zen.

{ Ertzaintzari buruzko Legea. Lege horrek amaiera eman dio aurreko etapari. Behin-behineko araudia edukitzetik, Lege horren bitartez, Ertzaintzaren jarduera guztiak arauturik edukitzera igaro gara. Ertzaintza sendotu egin da geurea dugun polizi kidego demokratiko gisa

{ EAEko Unibertsitatez kanpoko Irakaslegoei buruzko Legea eta Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea. Bi lege hauek egin aurretik Euzko Alderdi Jeltzaleak eta Hezkuntza Sailaren ardura zuen Alderdi Sozialistak elkarrizketa luze eta korapilotsuak izan zituzten. Nork bere eskakizun gogorrenei uko egin behar izan zizkion adostasuna lortzeko. Bi testuok hezkuntzaren arloa arautzeko balio izan dute, eta, arauak garatzeko arazoak gorabehera, hezkuntzaren arloa eta hezkuntza-sareak bateratu eta horien garapena antolatzeke ere bai.

{ EAEko ekonomia eta enplegua bizkortzeko aparteko aurrekontu- eta finantza-neurriei buruzko Legea. Lege honek, alde batetik, eta Eusko Jaurlaritzak Industri Politika, 1991-1995eko Jarduketarako Marko Orokorra deritzon txostenaren eta Epe Ertainerako Ekonomi Egitamua berri eman zuenean egin ziren gai bakarreko Osoko Bilkurek, bestetik, agerian jarri zuten Eusko Jaurlaritza kezkatuak zegoela Herriaren ekonomi egoeragatik eta horren ondorioengatik, batez ere lanpostu galera zela eta. Eusko Legebiltzarra aitzindaria izan zen horrelako arazoak parlamentarien artean eztabaidatzen.

{ Tartekaritza Batzordeari buruzko Legea. Lurralde Historikoetako Foru Aldundiek behin eta berriro eskatua zuten. Organo iraunkorra izateko sortu da, baina ez dauka organo-egiturarik. Foru Organoen eta Autonomi Elkarteko organo erkideen arteko gatazkak sortzen direnean bakarrik esku hartuko dute Batzordeko kideek. Lege honek bide ematen du Autonomi Elkarteari ahalik eta kostu txikiena eraginez eskumen arazoak ebatzi ahal izateko.

{ Beste lege nabarmen batzuk aipatuko ditugu: atzerriko euskaldun talde eta Euskal Etxeekiko harremanei buruzko Legea, Euskal Herriko Fundazioei buruzko Legea, Farmazien Antolamenduari buruzko Legea, Naturaren Artapenari buruzko Legea. Era berean, azpimarratu behar da Autonomi Elkarteko ekonomiaren eremua arautzeko egin den ahalegina. Hor ditugu, besteak beste, Ekonomi eta Gizarte Kontseiluaren aldarazpena, edo ekonomi kontrolari eta kontabilitateari buruzko Legea, eta, jakina, Aurrekontuei buruzko urteroko Legeen onespak, 1995ekoa barne.

b) Gai bakarreko Osoko Bilkurak:

{ Industri Politika, 1991-1995eko Jarduketarako Markoa deritzon txostenari buruz egin zen Osoko Bilkuraren ondorioz, txostena berrikusi eta gai berari buruzko Osoko Bilkurak egin ziren 1992, 1993 eta 1994an ere.

{ Euskal Nekazaritzarako Egitamu Estrategikoa, Jardunbide Nagusiak, 1992-96.

{ Drogamenpekotasunen aurkako hiru urteko Egitamua.

{ Euskal Autonomi Elkartearen Administrazioa arrazionaldu eta hobetzeko estrategia.

{ Euskal Osasun Sistema aldatzeko estrategiak - Osasuna Zainduz.

- { Epe ertainerako Ekonomi Egitamua.
- { Euzkadiko Gerontologi Egitamua.
- { 1994-2030 eperako Baso Egitamua.
- { Arrantza Egitamu Estrategikoa. Jarduketarako marko orokorra.
- { Euskal Autonomi Elkarteko hondakin bereziak kudeatzeko Egitamua.
- { Emakumearen aldeko Bereizketarako Neurrien Egitamua (1991-1994).

c) Bestelako jarduerak:

- { Legegintzaren garapenari buruzko txostena egin zuen taldeak hogeita sei bilera egin ondoren txostena atera zuen. Osoko Bilkurak txostena bera onetsi zuen unean Autonomi Elkarteak oraindik jaso gabe zeuzkan 54 eskumenak aipatzen dira bertan. Madrilekiko negoziaketetan txosten hori hartu da oinarritzat, eta horren emaitzak azkeneko transferentzi multzoan nabaritu ditugu.
- { Euskal Irrati Telebistari buruzko txostena. Oztopo ugari gainditu eta 15 bilera baino gehiago egin ondoren, bere irizpena azaldu zion Eusko Legebiltzarreko Osoko Bilkurari.
- { Osakidetzarako enpleguaren herri-eskaintza ikertzeko Batzordea. Honen irizpena gehiengoz onetsi zen Eusko Legebiltzarrean. Bertan azpimarratu zen PSE-EEK bazuela zerikusirik Osakidetzara sartzeko azterketetan iruzurra egiteko ahaleginekin.
- { Euskal Politikariaren Estatutuari buruzko txostena egin behar zuen Taldea. Bilera asko egin ostean, azkenean ezin izan zuen irizpenik atera, Eusko Legebiltzarra desegin egin baitzen 1994ko abuztuaren 31n. Dena dela, 1995eko maiatzaren 28ko foru eta udal hauteskundeen ondoren berriro lanari ekiteko asmotan dabil.
- { Eusko Legebiltzarraren Araudiaren Eraldaketari buruzko txostena egin behar zuen Taldea 20 bileratik gora egin zituen 1993 eta 1994an, harik eta beraren jarduera etenik gelditu zen arte, 1994ko urriaren 23ko hauteskundeak zirela eta. Berriro lanean ari da 1995eko martxoaz geroztik.

V) **EUSKO JAURLARITZA**

1.- EUSKO JAURLARITZAK IV. LEGEGINTZALDIAN IZAN DUEN JARDUKETAREN LABURPENA (1991-1994)

Eusko Jaurlaritzak azken lau urteetan burutu duen kudeaketari so egiten badiogu eta hala geure burua joan den legegintzaldiaren hasieran ipintzen badugu, gogorarazi behar dugu 1991n Euzkadi etapa

larrian zela eta gure ekonomiak -beraren ardatza den industriaren sektorea batez ere- bere burua saneatzeko eta egoera berrira moldatzeko ahalegin handia egin behar zuela, orduan nabari-nabariak ziren moteltzearen eta are krisi latzaren zantzuak gainditzeko.

Bada, igurikizun ekonomikoak ezinbesteko eragile baziren ere, guk ere bagenekien ekonomiaren egoera ez zela euskal gizarteak aurre egin beharreko arazo bakarra. Halaxe zen izan ere, hortxe zirauren indarkeriak, politika ez zegoen behar bezala normalizaturik, hezkuntzaren arloan hainbat arazo zegoen konpontzeke, Estatutuaren garapena gelditurik zegoen, langabeziak oso itxura txarra zuen eta Europaren eraikintzan eta 1992an Merkatu Bakarrean integratu beharra zegoen. Horiek guztiak etorkizun erabat etsigarria adierazten zuten zertzelada beltzak ziren.

Egoera horren aurrean Lehendakariak 1991ko urrian gobernu-egitarau askonahia aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzari, oinarrian sei helburu zituen:

- 1.- Euzkadiren lehiakortasunaren aldeko konpromezua.
- 2.- Euskal hiritarren bizi kalitatea eta ongizatea gehitzeko ahalegina.
- 3.- Gizarte integraziorako ahalegina.
- 4.- Hiritarren babesa eta segurtasuna bermatzea.
- 5.- Autogobernua sakontzea eta Euzkadik kanpoan duen presentzia areagotzea.
- 6.- Euskal Herri Administrazioa modernizatzea.

Jarraian Eusko Jaurlaritzak joan den legegintzaldian egin dituen jarduketa nagusien laburpena azalduko dugu.

1.1.-Euzkadiren lehiakortasunaren aldeko konpromezua

Eusko Jaurlaritzak joan den legegintzaldian egin duen lehenespeneko jarduketa gure industriak modernizatzea eta berregituratzea izan da, hots, azken batean EUZKADIREN LEHIAKORTASUNA HOBETZEA, horixe zelako modu bakarra aurrean geneukan aurkako abadagunea gainditu eta 1994 urtean mundu osoan hasi den ekonomi aurrerakada aprobetxatzeko.

Konpromezu hori betetzeko zenbait jarduketa egin dira, baina horietarik beharbada legegintzaldian garrantzi eta esangura berezia izan duten batzuk nabarmendu behar genituzke:

{ Industri Jarduketarako Egitamu Markoa abiarazi da, Estatu Espainiarreko lehenbizikoa; Eusko Jaurlaritzak birritan onetsi du eta ondorengoak izan dira beroni esker egin diren jarduketa nagusiak:

v Industriaren berregituratzea eta modernizazioa bultzatu da. Esaterako, gogora dezagun Euskal Siderurgia Taldea eratu dela altzairu berezien sektorea berregituratzeko asmoarekin, oraintsu eratu dela Sestaoko altzairu fabrika konpaktoa eraikitze sozietatea, oinarritzko sektoreak -makina-erremintarena, tutuena, irarketako mozketak eta forjarako erramintena- berrantolatze ahaleginak egin

direla, eta larri ibili diren enpresak erreskatatu eta berregituratzeko bidea eman duen aparteko egitaraua betearazi dela, 3R Egitamua deritzona.

v GARAPEN egitaraua eta Inbertsio Estrategikoetarako Bulegoa lanean jarri dira, gure elkartearantzako inbertsio estrategikorako egitasmoak erakarri eta abiarazteko.

v Euskal enpresa txiki eta ertainei laguntzak eman zaizkie AFI egitarauaren bidez eta Sociedad Capital-Riesgo, SOCADE edo LUZARO partaidetza kredituen sozietate berria bezalako tresnen bidez, helburua euren inbertsioen finantza kostua txikitzea zela.

v Euskal ekonomiaren Sektore Estrategikoetarako Lehiakortasun Egitaraua abiarazi da -elektrotresna handien sektorean eta makina-erramintarenean erabili da- eta goraka ari diren sektore berriak bultzatu dira: aeronautika, telekomunikazioak.

v Teknologia berritzearen aldeko apostua egin da eta horretarako Teknologi Elkartegien Euskal Sarea sendotu da, euskal enpresen teknologi kudeaketa eta berrikuntzarako egitarauak egin dira, Teknologiaren Euskal Kontseilua eratu da eta 1996ra arte iraungo duen Teknologiaren Euskal Egitamua onetsi da; horren herri aurrekontua 17.000 milioi pezetakoa da eta teknologi inbertsioetan 85.000 milioi pezeta mugitzeko asmoa dauka.

v Kalitatearen Euskal Fundazioa eratu da.

v Arabako eta Miramongo teknologi elkartegiak abiarazi dira eta Zamudiokoa hobetu da; azkenengoan Softwarearen Europako Erakundea ezartzeko kudeaketak egin dira.

v Kanpo sustapena eta merkataritza bultzatu dira onetsi diren euskal enpresentzako Kanpo Sustapenerako Egitamu Estrategikoaren bidez eta Merkataritzako Jarduera araupetu duen Legearen bidez.

v Lehen sektoreari bultzakada eman zaio, horretarako Euskal Landalurretarako Egitamu Estrategikoa, Arrantzaren Egitamu Estrategikoa eta Euskal Basogintzaren Egitamua onetsi direla, eta horretaz gainera Kalitatearen Euskal Labela eta nekazaritzako errententzako eta aurrejubilizazioetarako laguntza zuzenen egitarauak prestatu dira.

{ 1993ko apirilean Ekonomiaren eta Enpleguaren Berraktibaketarako Akordioa sinatu da. Egitamu horretan ezarrita dago zenbait neurri aparteko erabiltzea dagoeneko arribidean dauden osagarri legez. Honen helburu behinenak prestakuntza eta enplegua bultzatzea eta ekonomi jarduera dinamizatzea izan dira; beraren bidez ondorengo neurriak sustatu dira, besteak beste: ETEentzako zerga pizgarriak eta finantza tresnak; Lanbide Heziketarako Euskal Kontseilua eratu da; prestakuntza eta enplegurako egitamuak bultzatu dira, horretarako 40.000 milioi pezetako aparteko fondoa eratu dela enplegua sorraraz ditzaketen azpiegitura obrak egiteko.

1994ko abenduko datuen arabera, fondo horren %80a betearazita dago dagoeneko eta aldi baterako 8.200 lanpostu eragin ditu.

{ Epe Ertaineko Ekonomi Egitamua onetsi da; egitamu horrek euskal herri sektorea bideratzeko oinarritzako gidalerroak ezarri ditu datozen urteetarako, gure ekonomiak edukiko bide duen bilakaeraren koordinaden edo Europarekiko konbergentziaren barnean.

{ Europa '93 Egitamua burutu da eta, oro har, oinarrizko azpiegitura guztiak hobetu dira, eta horrela gure komunikazio-azpiegiturei berebiziko bultzada eman zaie. Legegintzaldi osoan izan den bultzakada horri esker Euskal Herriraren kokaera geografiko estrategikoa sendotu da, baita barne lorpidetasuna ere.

Aski dugu labur-labur begiratzea Ugaldebietako autobideari, Malmasingo tunelari, Gasteizko ingurabideari, N1 errepidearen Araba eta Gipuzkoako bikoizturei, Gipuzkoa-Nafarroa autobidearen aurrerapenari, euskal trenbideetan izan diren hobekuntzei, Bilbo Portu Autonomiadunaren zabalkuntzari, Bilboko tren metropoliarraren sarearen 1. fasean egin den aurrerakada nabarmenari, energia azpiegituren sare fisikoaren burutzapenari, eta gaur egun lanean diharduten poligonoak osatzeko eraiki diren industrialdeei jakiteko zein ahalegin handiak egin diren Euzkadiri European lehiazeko gaitasuna ematen dioten oinarrizko azpiegiturak hornitzeko.

1.2.-Hiritar guztien Bizi Kalitatea eta Ongizatea gehitzeko ahalegina

Lehiakortasuna hobetzeko egiten diren jardueren osagarri gisa, eta elkartasunaren eta enpleguaren alde egiteko asmoz, ahalegin handia egin da Euskal Herriko hiritar guztien bizi kalitatea eta ongizatea hobetzeko.

Horrela, Ingurugiroa hobetzeari ekin zaio eta, horretarako, 32.000 milioi pezeta inbertitu dira azpiegitura hidraulikoetan; gainera, Valderejoko, Gorbeia eta Aralarko Parkeak Natur Parke gisa onartu dira eta Naturaren Artapenari buruzko Legearen Egitasmoa onetsi da.

Osasunari dagokionez, OSASUNA ZAINDUZ izeneko Osasunaren Hobekuntzarako Egitamua abian jarri da eta osasun azpiegiturak zabaldu dira; horretarako, Araban Ospitale Psikiatriko berri bat eraiki da, Mendaroko Ospitalea amaitu da eta beste 38 osasun zentro zabaldu dira.

Gaur egun, eta azken urteotan bultzada handia izan duenez gero, Euskal Herriko Osasuna aintzindari bihurtu da Estatu osoan, batez ere gaisoarenganako laguntzari eta egiten dituen zerbitzuen kalitateari dagokienez.

Halaber, aurrekontuen arloan ahalegin eskerga egin da behartsuenentzat 4.128 gizarte etxebizitza prestatzeko 91-93 urteetan; gainera, 1994. urtean beste 3.000 gehiago egin dira.

Azkenik, Justiziaren azpiegiturak ere modernizatu dira: Justizi Jauregiak eraiki dira Barakaldon, Bilbon, Balmasedan, Tolosan, Gasteizen, Gernikan, Durangon, Irunen eta Getxon.

1.3.-Birgizarteratzea lortzeko ahalegina

Beste arlo batean arituz, nabarmendu beharra dago legegintzaldi honetan Eskola Ituna burutu dela; itun hori gure Elkartean egin gabe egon da luzaroan eta, gizarte jardueraren eremu guztietan eragina duenez gero, oso garrantzitsua da kulturaren barne arloan lotura lortzeko. Akordio hau Euskal Eskola Publikoari buruzko Legea, Irakaslegoari buruzko Legea onetsi izanak eta Ikastolak gaur egungo bi

sareetan sartzeak eragin dute, eta horrek erabateko garrantzia izan du hezkuntza sistema osoaren behin betiko arauzkotze prozesuan.

Hizkuntzaren eremuan, Euskararen Erabilpena Arauzkotcheko Oinarrizko Legeari eta Funtzionariak Euskalduntzeko Akordioari esker, gure gizartean euskararen erabilpena normalizatu eta bultzatu egin da.

IKASTURTEA	HIZKUNTZ EREDUEN ARABERAKO ELKARTEA				
	GUZTIRA	A	B	D	X
92/93	421.406	239.715	75.423	101.540	4.728
93/94	404.691	223.603	70.914	105.732	4.442
94/95	390.316	205.702	69.913	110.657	4.044
95/96	373.446	187.951	68.437	113.502	3.556
GUZTIRA	1.589.859	856.971	284.687	431.431	16.770

OHARRA: Unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta pribatuei dagozkien datuak.

Azkenik, eta Kulturaren Garapenari dagokionez, Guggenheim Museoa eraikitzea ideia bat izatetik begi bistan dugun errealitate izatera iragan da. Obra honek Euzkadiko museoan azpiegitura osatuko du; azpiegitura hori Euskal Herriko Museoen Nazio Egitamua definitu zuen. Estatuan hurrengo 10 urteetan hamaika museo nazional eraikitzea eta horretarako 23.000 milioi pezeta inbertitzea erabaki da. Bestalde, Eusko Legebiltzarrak EITB Euskal Irrati Telebistaren eredia definitu du, eta horretarako, zeintzuk izango diren komunikabide publikoen helburuak, jardupideari buruzko araubideak eta finantzaketa zehaztu dira.

Pobreziaren Aurkako Egitamu Integralak, 1989an abian jarri zenak, bere estaldura sendotu du. Egun horretatik 1994. urtera arte ia 30.000 milioi pezeta erabili izan dira Birgizarteratzeko Gutxienezko Dirusarrera Laguntzetan eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzetan. Gaur egun, Euskal Herrian 20.000 familiak jasotzen dituzte egitarau horien onurak.

Emakumea arretagune berezia izan da legegintzaldi honetan; Emakumearen aldeko Bereizketa Egitamua garatzen eta egikaritzen hasi gara (1991-1994). Halaber, Emakumearen aldeko Bereizketarako Neurrien II. Egitamua (1995-1999) idazteari ekin diogu, Emakunde-ren gidaritzapean; egitama prestatzeko lan horretan, partehartze handia dute bai emakumeek eurek eta bai arazo honek ukitzen dituen beste gizarte-sektore batzuek ere.

Bestalde, batez ere ahulak diren taldeei eman zaie arreta berezia, adibidez, drogazaleei; horretarako, Drogamenpetasunaren aurkako Hiru urteko II. Egitamua onetsi da 93-95 urteetarako. Zaharrei ere arreta berezia eman zaie, eta horretarako, Euskal Herriko Gerontologi Egitamua onetsi da.

1.4.-Hiritarren Babesa eta Segurtasuna Bermatzea

Hiritarren babesa eta segurtasuna bermatzeko, gure autogobernurako tresnetariko bat sendotzeaz gain, honako legegintzaldi honetan Ertzaintzaren hedapena bultzatu da E.A.E. osoan; hedapen hori ez da oraindik Gasteizera heldu.

Bakeratze prozesuari dagokionez, gogora ekarri nahi ditugu indarkeriaren aurka gizartean aurrepausu ugari egin direla; eta azkenean, Ajuria Eneako Mahaian parte hartzen duten alderdi demokratikoetan ordezkariak dituzten hiritar gehienak eta bai HBren inguruko asko ere indarkeria horren aurka agertu dira.

Hortaz, terrorismoaren ekintzak aurrera jarraitzen badute ere, gaur egungo egoerak eta orain lau urtekoak ez dute funtsean inolako zerikusirik. Horri dagokionez, Ajuria Eneako Itunak legegintzaldi honetan 13 bilera egin ditu, Euskal Herriko gizartea indarkeriaren aurka dagoela frogatzen dutenak. Gainera, lau jazoera nagusi ekar daitezke gogora:

- { Bilbon 1992ko otsailean egin zen "*Bakearen Alde*" manifestazioa.
- { Julio Iglesias Zamoraren askapena eskatzeko egin zen gizarte mobilizazioa.
- { Joseba Goikoetxea, Ertzaintzaren Sarjentu Nagusiaren hilketa zela eta, jende kopuru ikaragarriak ETaren aurka erakutsi zuen gaitzespena.
- { Jose Maria Aldaiaren askapena eskatzeko egin den gizarte mobilizazioa.

1.5.-Autogobernua sakontzea eta Euzkadik kanpoko erakundeetan parte hartzea

Autogobernua sakontzeko hartu dugun konpromezua, bai legegintza garapenaren barne ikuspuntutik, bai egin gabe dauden transferentzia intsuldaketaren desblokeoarekin dagoen kanpo ikuspuntutik, legegintzaldi honetan lehentasun politikoetako bat izan da.

Legegintzaren Barne Garapenari dagokionez, beste 38 lege onetsi dira; batzuk oso garrantzitsuak dira, adibidez, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa eta Irakaslegoari buruzkoa, eta beste batzuk Euzkadiren etorkizunerako funtsezkoak dira, adibidez: Aurrezki Kutxei buruzko Legea, Ekarpenei buruzko Legea, Epai-Barrutiko buruak zeintzuk diren zehaztuko duen Legea, Ertzaintzari buruzko Legea, Kooperatibei buruzko Legea, Animalien Babesari buruzko Legea, Lanbide Segurtasunerako Euskal Erakundea Sortzeari buruzko Legea, Turismoa eta Merkataritza Jardueraren Antolamenduari buruzko Legea, Kanpoko Euskal Talde eta Euskal Etxeei buruzko Legea, Fundazioei buruzko Legea, Tartekaritza Batzordeari buruzko Legea, Ekonomi eta Gizarte Kontseiluaren Aldarazpenari buruzko Legea, Naturaren Artapenari buruzko Legea, edo Etxebizitzaren arloko Presazko Neurriei buruzko Legea.

Administrazio Zentralaren arloan, joan den maiatzaren 30ean Estatutuaren prozesua desblokeatu zen, 8 transferentzia intsuldaturik; transferentzia horietatik bat obra hidraulikoak dira.

1994ko azaroan, beste akordio bat sinatu zen Iruzuraren aurkako eta Nekazaritzako Elikagaien Politikaren transferentziari dagokionez.

Orain negoziazio irekien prozesu etengabe batean jarduten ari bagara ere, begi bistan dago ezin dugula pozik egon, Administrazio Zentralak gure Estatutuaren "*Estatuarekiko Ituna*"k duen zentzu politiko sakona berreskuratzen ez duen bitartean; horretarako, horren interpretazioa bere gertuketan adostu genituen terminoen arabera egin behar da.

Kanpo Ekintzarako Idazkaritza nagusia sortzeak Euzkadik Europako foroetan parte har dezala bultzatu du, eta bai lankidetzak akordioak sina daitezela ere, bai bialdekoak (Euzkadi-Bavaria), bai herrialdeanitzekoak (Nafarroarekin eta Akitaniarekin, adibidez).

Arlo horretan, Konstituzio Auzitegiak oraintsu epai bat eman du eta bertan Euzkadiri Europar Batasunean bere ordezkariak izateko eskubidea aintzatetsi dio; gainera, epai horrek Eusko Jaurlaritzak arlo horretan defendatu dituen tesiak berretsi ditu eta aukera berriak eskaini ditu Europaren eraikintzaren prozesuan herrialde arteko harremanak bultzatzeko.

Beste herriekiko elkartasunerako ahalegin handia egin da, 231 proiektu finantzatu baitira Hirugarren Munduko herriei garatzen laguntzeko.

Euzkadi kanpoan ezagutaraztea helburu duten jarduerak ere etengabeak izan dira. Lehendakariak berak eta Jaurlaritzako sailburuek bidaia asko egin dituzte merkataritza bultzatzeko eta kanpoko erakundeekiko harremanak sendotzeko.

1.6.-Euskal Herri Administrazioaren modernizazioa

Euzkadi leihakorra izan dadin nahitaezkoa da barne baliabideak arrazionaldu eta modu eragin-korragoan erabiltzea. Horretaz jabetuta, oraingo legegintzaldian HERRI ADMINISTRAZIOA ERALDATZEKO eta modernizatzeko neurriak antolatu dira, hau da, etengabeko ahaleginak egin dira herritarrei ematen zaizkien zerbitzuen eraginkortasuna eta kalitatea hobetzeko. Bide horretan, Eusko Jaurlaritza izan da lehenengoa osasun sistema eta hezkuntza eraldatzeko egitasmoak abiarazten, eta gainera gastu arruntak eta pertsonalaren gastuak murrizteko neurriak hartu ditu azken hiru urteotan: langile plantilak eta goi-kargudunen nahiz funtzionarien alokairuak izoztea, eta gastu arrunten kapituluan doikuntza egitea.

Bestalde, Euskal Herri Administrazioaren antolamenduaren egitura eraberritzeko gidalerroen multzoa onetsi da orain dela gutxi (94.06.28an). Era horretara, hurrengo urteetan ere eraldaketaren bidetik jarraitzeko neurriak ezarri dira.

Horra hor, laburbildurik, legegintzaldi honek ekarri duena. Etapa gogorra eta eragozpenez betea izan da, baina guztion ahalegin eta elkarlanari esker aurre egin ahal izan diogu. Emaitzak begien aurrean ditugu dagoeneko: ekonomiaren zuzperketa, BEGen hazkunde tasaren igoera, esportazioen gehikuntza, edo lanean ari diren biztanleen kopurua 1994ko bi hiruhilekotan jarraian igotzea, datu horiek guztiek aurrera bultzatzen gaituzte, guztion artean azken lau urteotan antolatu dugun eraberritze eta hobekuntza prozesu honetan.

2.- V. LEGEGINTZALDIRAKO KUDEAKETA EGITAMUA (1995-1998)

Eusko Jaurlaritzak 1995-1998 legegintzaldian egingo duen kudeaketaren inguruko konpromezu eta oinarriak 1994ko abenduaren 26an finkatu ziren, EAJ, PSE-EE-PSOE eta EA alderdi politikoez koalizio Akordioa sinatu zutenean.

Jaurlaritza hori beharrezkoa den adostasunetik abiatuko da, eta Legebiltzarrean behar besteko aldeketasuna izango du Euzkadiko erakundeen egonkortasuna bermatu ahal izateko Estatuko politikan eta gizartearen gertatzen diren gorabeheren gainetik; azken batean, geure Herria datorren menderako egokitu eta prestatzeko erronkari aurre egin ahal izateko.

2.1.-Jarduketaren ardatz nagusiak

Jaurlaritza horrek, herri baliabideen kudeaketa egoki eta eragingarria oinarritzat hartuta, Jarduteko Egitarau Baterakoia garatuko du. Egitarauak ardatz hauek izango ditu:

- { Lehiakortasuna eta prestakuntza, lanpostuak sortzeko.
- { Elkartasuna, gizartea bateratzeko eta kultura integratzeko.
- { Autogobernu osoa, eta Euzkadik kanpoko erakundeetan parte hartzea.
- { Elkarrizketa eta lasaitasuna, berradiskidetzea eta bakea lortzeko.

2.2.-Jaurlaritzaren egitarauaren xedeak

Funtsezko ardatz edo erronka horiek gogoan, 95-98 legegintzaldirako egitarauan helburu hauek ezarri dira:

- { Lehiakortasuna sendotzea, lanpostuak sortzeko giro egokia egon dadin.
- { Gizarte elkartasunaren aldeko politika eragingarria garatzea.
- { Kalitatezko hezkuntza sistema lortzeko bidean aurrera egitea.
- { Euskal herritarren bizimodua eta gizarte ongizatea hobetzea.
- { Ekologiaren printzipioak eta ingurugiroarekiko errespetua ekonomiaren hazkundearekin lotzea.
- { Geure Herri izaera indartzea.
- { Estatutuaren garapen osoa lortzea.
- { Euzkadik kanpoko erakundeetan duen partaidetza sendotu eta areagotzea.
- { Herri Administrazioa eraldatu eta modernizatzeko prozesuari eustea.
- { Elkarrizketa eta lasaitasun giroa sortzea, berradiskidetzea eta bakea lortzeko.